

## Amets Arzallus eta Jon Maiak migrazioaren inguruko bertso saioa eskainiko dute larunbat honetan Euskal Itsas Museoa

- Maiatzaren 29an arratsaldeko 17:30etan ospatuko da Donostiako portuko Museoa
- XIX. mendeko euskal migrazioak eta gaur egungo prozesuak ispiluan jarriko dituzte, *Leopoldina Rosa* erakusketaren barruan
- Sarrerak [komunikazioa@itsasmuseoa.eus](mailto:komunikazioa@itsasmuseoa.eus) helbidean edota 943 430051 telefonoan lortu daitezke

Euskal Itsas Museoa, EITBren lankidetzarekin, *Leopoldina Rosa* aldi bateko erakusketarekin loturiko bertso saioa ospatuko du hilaren 29an. Larunbateko 17:30etan, Amets Arzallus eta Jon Maia bertsolariek XIX. mendeko euskal migrazioak eta gaur egungo prozesuak ispiluan jarriko dituzte. Bertsoak Museoa! jardueraren gai-jartzailea Museoko zuzendari zientifikoa den **Xabier Alberdi** izango da.

Migrazioa ardatz duen bertso saioa, gaia oso ondo ezagutzen duten bi bertsolariekin gauzatuko da; Amets Arzallus eta Jon Maia. Amets Arzallus, kazetari eta idazleak, 2019an "Miñan" liburua argiratu zuen; Ibrahimak bere jaioterritik Irunera egin zuen bidearen berri ematen digu. Jon Maia bertsolari, dokumentalista eta "hezurbeltzak" musika taldeko kideak, berriz, migrazioaren arloko integrazioa landu du bereziki bere obran.

Gainera, portuko museoara gerturatu ezin dutenentzat, ekitaldia EITBn streaming bidez zuzenean zabalduko da. Jarduera hilaren 29an 17:30etan gauzatuko da, eta 5€ko prezioa izango du pertsonako. Izen-ematea derrigorrezkoa izango da [komunikazioa@itsasmuseoa.eus](mailto:komunikazioa@itsasmuseoa.eus) helbidean edota 943 430051 telefonoan.

Jarduerak COVID19ren aurkako segurtasun-neurrietara egokitu dira, eta edukiera mugatua izango dute.

Euskal Itsas Museoa, aurten ere, ICOMek antolatutako Museoen Nazioarteko Eguna ospatuko du "Museoen etorkizuna: berreskuratzea eta berrimajinatzea" lelopean, bere proiektuak birpentsatu, berreskuratu eta berrimajinatu nahian.

## El Euskal Itsas Museoa celebrará el sábado una sesión especial de bertsos sobre migración con Jon Maia y Amets Arzallus

- El evento será el 29 de mayo a partir de las 17:30 en el museo del puerto donostiarra
- “Bertsoak Museoan” pondrá en el espejo las migraciones del siglo XIX y las que se dan hoy en día, al hilo de la exposición "Leopoldina Rosa"
- Las entradas pueden conseguirse a través del teléfono 943 43 00 51 o por email en [komunikazioa@itsasmuseoa.eus](mailto:komunikazioa@itsasmuseoa.eus)

El Euskal Itsas Museoa celebrará el próximo 29 de mayo por primera vez una sesión de bertsos en el museo en colaboración con EITB dentro de los eventos organizados alrededor de la **exposición temporal Leopoldina Rosa**. Será partir de las **17:30** de la mano de los bertsolaris **Jon Maia y Amets Arzallus** y tendrá como eje la migración. El director científico del museo, **Xabier Alberdi**, será el encargado de ir estableciendo los temas en torno a la migración actual y del siglo XIX.

El objetivo es promover la reflexión en torno a este tema tan presente en nuestra sociedad, un fenómeno que tanto Maia como Arzallus conocen bien. Amets Arzallus, periodista y escritor, publicó "Miñan" en 2019, un relato en primera persona del camino de Ibrahima desde su Ghana natal hasta Irún. Por su parte, Jon Maia, bertsolari, documentalista y miembro del grupo musical *hezurbeltzak*, ha trabajado el tema de la integración en materia de inmigración de manera habitual en su obra.

Además, para las personas que no pueden desplazarse al museo del puerto donostiarra, EITB emitirá la sesión **en directo vía streaming**. El precio de la actividad será de **5€** por persona y las entradas **se pueden adquirir por teléfono en el 943 43 00 51 o en [komunikazioa@itsasmuseoa.eus](mailto:komunikazioa@itsasmuseoa.eus)**.

Todas las actividades se han adaptado a las medidas de seguridad ante la COVID19 y tendrán un aforo limitado.

El museo se une, un año más, a la celebración del **Día Internacional de los Museos** bajo el lema “El futuro de los museos: recuperar y reimaginar” explorando un formato de reflexión y divulgación nuevo para el centro del puerto donostiarra.



Laida Canseco Etxabe - EUSKAL ITSAS MUSEOA  
Kaiko Pasealekua, 24 – 20003 DONOSTIA  
Telf. +34-943 430051 – [komunikazioa@itsasmuseoa.eus](mailto:komunikazioa@itsasmuseoa.eus)  
[www.itsasmuseoa.eus](http://www.itsasmuseoa.eus)